


ERRALDOIA ETA TXORIAK



LIBURUAREN FITXA

BIONDI, Ghislaine; DAUTREMER, Rebecca. *Erraldoia eta txoriak*. Tarttalo, 2003.

Aurkezpena

Istoria eder bezain tristea dugu begien aurrean. Inor baino handiagoa da gure erraldoia: lurra dardar batean jartzen da haren pausoekin batera, hodeiek kilimak sentitzen dute hura pasatzen denean. Baina inork ez du maite erraldoi gizagaixoa: burla egiten diote, barre egiten diote baldarra delako. Halako batean, bakardadea aukeratu, eta basoan ezkutatu du bere burua. Zeruetako txoritxoan eta lur azalean dabilzan beste animalia txikien konpainia eta onarpena lortuko du ipuinaren bukaeran.

Kontaketa

- Ilustrazioetatik abiatu eta istorioa eraiki hurrekin batera. Ilustrazioak behatu eta haien koloreak eta eszenak aztertu. Gustukoa al dute?
- Istorioan gertatzen diren sentimenduak aztertu kontaketa aurrera egiten duen neurrian.
- Ipuina ondo ulertzen dutenetik aurrera, testua irakurri, bertan azaltzen diren irudiak azalduz.

Proposamenak bideratzen

- Herrikoen jarrera nolakoa zen? Non ikusten da batik bat? Ilustrazioak kokatu eta aztertu.
- Erraldoiak zergatik ez die aurre egiten?
- Egokia al da ipuinaren bukaera? Nola bukatuko zenuke zuk?

Proposamenak zehazten

- Ondo jokatu al dute ipuinaren pertsonaiek?
- Zer esango zenieke herrikoei erraldoia ez baztertzeko?
- Zer esango zenioke erraldoiari herrikoei aurre egiteko?
- Bukaera berri bat egin ipuinari.